

## ADIERAZPEN BATERATUA

Badirudi larunbatean ZKEk argitaratu zuen komunikatuak oihartzuna izan duela eta hautsak harrotu dituela eskualdean.

Gertatutakoa argitu asmoz eskualdeko eskola kiroleko mahaia elkartu gara Zarautzen. Gure asmoa ez da inor seinalatzea, epaile adingabeek jasan behar izan zituzten jarrera desegoki eta onartezinak salatzea baizik.

Zoritxarrez kirol ezberdinetan eta adin ezberdinetan errepikatzen ari den arazo larri baten aurrean gaude. Kirolak, kirola dira eta, izatez, ez dituzte baloreak transmititzen. Baloreak pertsonok jartzen dizkiegu, eta kirola hezigarria izango da (edo ez), inplikaturakoon balore eta jarreraren arabera. Beraz, ez diezaiozun ardura "kirolari" leporatu gauza abstraktu bat izango balitz bezala. Onartu dezagun behingoz GURE ardura dela, eta egin dezagun lan DENOK (kluba, ikastetxeak, gurasoak, jokalaria, entrenatzaileak eta epaileak) bakoitzak bere esparrutik, norabide berean.

Zentzu honetan, Eskola Kirol hezigarri baten aldeko jarrera eta konpromisoa erabatekoa da ZKE klubaren eta Eskola Kiroleko mahaia osatzen duten eragile guztion aldetik. Elkarlanean jarraituko dugu jarrera desegoki eta errespetu faltak desagerrarazteko eta, batez ere, gure txikiei kirolaz gozatzeko, hazteko eta ikasteko ingurune seguruak eskaintzeko.

Gutxi batzuen jarrerek ez dezatela estali gehiengo zabalaren eredugarritasuna.

Jokatu dezagun arduraz.

**EREDU (ON) IZAN GAITEZEN!**

**APIRILAK 27 LARUNBATA, 11:30TAN DEIALDIA ZABALTZEN DEGU PARTAIDE GUZTIENTZAKO GURUTZE GORRIAREN AURREAN TALDE ARGAZKI ERRALDOIA ATERATZEKO ESKOLA KIROL HEZIGARRI BATEN ALDE!**

Zarautzen, 2024ko apirilaren 23an



IKAS  
KOMUNITATE  
ERALDATZAILEA



**SALBATORE  
MITXELENA**  
*ikastola*

